

DOMUND 2021

Kontatu ikusi eta entzun dozuna!

“Ardura hartzeko’ eta bihotzean doguna ezagutzera emoteko deia”
Frantzisko Aita Santua

“Prest nozu, bialdu neu” (Is 6, 8) iazko DOMUND eguneko goiburuagaz, Frantzisko Aita Santuak GUTAKO BAKOTXA BIALKETARAKO PREST EGOTEA eskatzen eban: “Abia gaitezen, irten gaitezen guztiei Jesu Kristoren bizitza eskaintzera” (EG 49). Horrek, **“konpartitzeko, zerbitzatzeko eta bitarteko izateko”** aukera emoten deusku, ni bildurti eta itxitik atara eta norbere buruaren dohaintzaren bidez barritutako bestearengana igaroz.

Aurton, Apostoluen Eginetatik hartutako goiburuak norberak bakarka eta alkarteagaz batera emondako lekukotasuna eragin gura dau: **“Kontatu ikusi eta entzun dozuna”**. Makina bat anai eta arrebak bizi dauan egoeraren ‘ardura hartzeko’ deia, bihotzean doguna ezagutzera emonez.

Pandemiak baldintzatu ditu urte hau eta aurrekoa. Orain, sekula baino beharrezkoagoa da “kidetasun eta alkartasuna lehenetsiko dituan alkartea sortu eta horri denpora, ahalegina eta ondasunak zuzentzea” (FT 36). Holan osasun publikoaren aldeko konpromisoak ezinbestez dakarren distantziak ez ditu bat egiteak eta makalenen aldeko arreta ta euron sustapena.

Kanpaina honek martxan jarri gura gaitu, gure buru eta bihotzak zabalduz. Kristoren misinoaren barruan gagoz eta misino horrek danon laguntza behar dau: “Zoaze, bada, bidekurutzeetara eta deitu

ezteguetara guztiak aurkitu ahala" (Mt 22, 9). Inork ezin dau bere burua **errukizko maitasuna** sustatzeko deitik kanpo ikusi. Kristok gizon eta emakume eskuzabalak behar ditu gaur be, fede sendoa dabenak, Jainkoaren Maitasunari bide emoteko eta munduaren kanpoaldeetan agertzera emoteko gauza diranak.

Lekukoek, gaur egungo misiolariak, ezin dabe ikusi, entzun eta bizi izan dabena ezkutatu. Askok eta askok herriaren zoritxarreko esperientziakaz bat egiten dau: herritarrak errespetatzen ez dabezan gerrak, gosea, zapalketa, desbardintasuna, ezegonkortasun politikoa, ziurtasunik eza ekonomian... Baina egora guztietan somatzen dabe Jaunaren laguntasuna eta honek indarra emoten deutse alperreko sufrimentua gainditzeko eta, aldi berean, planeta eder hau, eraso larriak jasaten dituan eta danona dan etxea, zainduz.


DOMUND egun honetan, gogoan izan daiguzan Bilboko Eleizbarrutiko misiolari guztiak. Fedez eta biziz betetako lekukotasuna emonez, Barri Ona heraraztote deuskue, guk bizi doguzan gizarte eta ekonomia egoerakaz alderatuz guztiz desbardinetan bizi dan jendartean ikusten eta entzuten dabena iragarritz eta salatuz.

Lagundu deiegun eta lankidetzan jardun daigun Eleiza osoaren misiolari eginkizunean bakarka eta alkarteagaz batera otoitz eginez, diru-laguntzak emonez, parrokiako, alkarteetako eta Eleizbarrutiko misiolari jardueretan parte hartuz. Herrialde txirotueto Eleiza ahizpekiko senide laguntasun honi esker, bizirik eutsiko deusagu gaur, Maria ebanjelizazinoaren izarraren laguntzagaz, gure misiolari konpromisoari.

Anaitasunezko besarkada



+ Joseba Segura
Bilboko Gotzaina



DOMIUND 2021

¡Cuenta lo que has visto y oído!

“Una invitación a ‘hacernos cargo’ y dar a conocer aquello que tenemos en el corazón” P. Francisco

Con el lema del DOMUND del año pasado: **“Aquí estoy, envíame”** (Is. 6, 8), el papa Francisco pedía DISPONIBILIDAD PERSONAL para ser ENVIADOS Y ENVIADAS a la Misión: “Salgamos, salgamos a ofrecer a todos la vida de Jesucristo” (EG 49). Ello nos da la oportunidad de **“compartir, servir e interceder”** y así podremos pasar del yo temeroso y encerrado, a otro renovado por el don de uno mismo.

Este año el lema, inspirado en los Hechos de los Apóstoles, quiere suscitar el testimonio personal y comunitario: **“Cuenta lo que has visto y oído”**. Una invitación a “hacernos cargo” de la situación de muchos hermanos y hermanas, dando a conocer aquello que tenemos en el corazón.

Este año, como el pasado, han estado marcados por la pandemia. Ahora es más necesario que nunca “crear una comunidad de pertenencia y solidaridad, a la cual destinar tiempo, esfuerzo y bienes” (FT36). Así la inevitable distancia a la que obliga el compromiso con la salud pública, no impedirá los encuentros, la atención y la promoción de los más débiles.

Esta campaña quiere ponernos en movimiento, abriendo nuestras mentes y corazones. Somos parte de la misión de Cristo, una misión que necesita la colaboración de todos: “Salid al cruce de los caminos e invitad a todos los que encontréis” (Mt 22,9). Nadie puede sentirse al margen de

esta llamada a promover el **amor de compasión**. Cristo sigue necesitando personas generosas y con fe recia, capaces de colaborar con el Amor de Dios y reflejarlo en las periferias del mundo.

Los testigos, los misioneros y misioneras de hoy, no pueden ocultar lo que han visto, lo que han oído, lo que han experimentado. Muchos comparten las experiencias dramáticas del pueblo: guerras que no respetan a la población civil, hambre, explotación, desigualdad, inestabilidad política, inseguridad económica... Pero en toda situación se saben acompañados por el Señor y esto les da fuerza para superar el sufrimiento absurdo, cuidando al mismo tiempo de este bello planeta, nuestra casa común, tan afectado por graves padecimientos.

En este día del DOMUND, tengamos presentes a todos los misioneros y misioneras de nuestra diócesis de Bilbao. Con su testimonio de fe y de vida, ellos transmiten la Buena Noticia, anunciando y denunciando lo que ven y lo que oyen en medio de su gente, en situaciones sociales y económicas tan distintas a las nuestras.

Colaboremos con ellos y con la tarea misionera de toda la Iglesia mediante la oración personal y comunitaria, con nuestros aportes económicos, participando en las actividades misioneras de las distintas parroquias, comunidades y del conjunto de la diócesis. Gracias a esta colaboración fraterna con Iglesias hermanas en países empobrecidos, mantenemos vivo hoy, con la ayuda de María, estrella de la evangelización, nuestro compromiso misionero.

Un abrazo fraterno



+ Joseba Segura
Obispo de Bilbao